



SARRERA/ENTRADA	 2022 ABE. 23
	ZK/N.º 4464
	ESP/EXP 11/c/05/1922

Agiri-mota / Tipo de documento: **Galdera / Pregunta**
Data / Fecha: 2022-12-15
Nori zuzendua / Dirigido a: BNetako Mahaiari / La Mesa de las JJGG de Gipuzkoa
Aurkezlea / Proponente: Ainhoa Intxaurrendieta Ezkurra
Batzarkide taldea / Grupo juntero: EH Bildu

IZENBURUA / TÍTULO

Gipuzkoako Foru Aldundiak Pasai Donibaneko saneamenduaren obraren lehen fasearekin lotutako galderak José Ignacio Asensio Ingurumen eta Obra Hidraulikoen foru diputatu jaunari zuzendua, idatziz erantzun ditzan.

ZIOA eta/edo AURREKARIAK / MOTIVACIÓN y/o ANTECEDENTES

Gipuzkoako Foru Aldundiak, zehazkiago Obra Hidraulikoen departamentuak, azaroaren 15ean jarri zuen jende aurrean Pasaia Donibaneko saneamenduaren 1. faseari dagokion proiektua.

Proiektua errepasatuta hainbat gabezia dituela ikusi ahal izan dugu eta, horien ondorioz, zenbait zalantza sortu zaizkigu.

INFORMAZIO-ESKAERA / SOLICITUD DE INFORMACIÓN

1. Zer gertatuko da fase honetan saneamendu saretik at geldituko diren isuriek? Zergatik ez da aurre-ikusten isurien % 100a jasotzea? Arrazoi teknikoak baleude horretarako, zeintzuk diren eta horiek gainditzeko planteatu edo baztertu diren soluzioak zeintzuk jakin nahiko genuke.
2. Aurre-ikusten al da kanpoan geldituko diren isuri horiek hurrengo fase batean jasotzea? Baiezkoa bada, noiz gauzatuko da fase hori? Zenbat denborako epean? Noiz hasiko da Foru Aldundia kanpoan geldituko diren isuriak jasotzeko proiektuaren lanketarekin?
3. Larrabideko ingurua lehen fase honetatik kanpo uzten da. Zergatik? Aurre-ikusten al da inguru horretako isuriak beste fase batean jasotzea? Zeinetan?
4. Zergatik hasiko da saneamenduaren obra zenbait etxebizitzetako kanalizazioak egokitu ez badira oraindik saneamendu sarera lotzeko? Zer egingo da egokitu gabe dauden etxebizitza horiek lehenbailehen egokitzeko?
5. 2021ean Pasaia Donibaneko Kulturgunean egin zen informazio eta parte-hartze saioan bertan zeuden agintariak etxebizitza pribatuetan egin beharreko moldaketa eta instalazioen obrak diruz laguntzeko edo horiek egiteko kofinantziazio metodoak bilatzeko konpromisoa hartu zuten. Nola doa kontu hori? Noiz aurre-ikusten da laguntza horiek martxan jartzea? Jarduketa pribatuak diren arren, aurre-ikusten al da hauek diru publikoz laguntzea, herriko beste gune batzuetan egiten ari den bezala, kontutan hartuta ingurugiroa kaltetzen ari garela eta interes orokorreko gaia dela?
6. Gas azpiegiturarekin lotuta, ikusi dugu proiektuaren fase honetan ez dela aurre-ikusten, kanpoan uzten da Rennerren txostena aintzat hartuta, zergatik? Ez al dira ari Norte Gaseko teknikariak Foru Aldundiaren teknikariek alternatibak bilatzeko elkarlanean? Nola doa prozesu hau?
7. Obren gauzatze epeari dagokionean, berriro ere aipatzen du proiektuak Pasaia Donibane gune turistikoa dela eta horren ondorioz zenbait ordutegi eta epetan ezingo dela lanik egin; norekin adostu dira ordutegiak eta epeak? Zergatik hartu dira erabaki hauek? Inplikaturako kolektiboekin (bizilagunak, merkatariak, ostalariak...) hitz egin eta adostu dira?
8. Parte-hartze prozesuarekin lotuta, 2021eko aurkezpenera bertaratu ziren bizilagunei deboluzio saio bat agindu zitzaion. Noiz egingo da saio hori? Zergatik ez da egin orain arte?

Proposatzailearen sinadura / Firma del proponente
Ainhoa Intxaurrendieta Ezkurra
EH BILDU BATZARKIDE TALDEA

Bozeramailearen oniritzia / Visto bueno portavoz
Juan Karlos Izaguirre Hortelano
EH BILDU BATZARKIDE TALDEA